

KIROL-ESPARRUAN EMAKUMEEN
ETA GIZONEN ARTEKO
BERDINTASUNA SUSTATZEKO
PLANA

2014ko ekintza-programaren ebaluazioa

2014ko abendua

	AURKIBIDEA	Orr.
	Sarrera	
	1. lan-eremua: genero-ikuspegia txertatzea kiroltako lan-arloko prozesuetan.	4
	2. lan-eremua: «Euskadi, ariketa fisikoaren erreferentzia»: genero-ikuspegia txertatzea	13
	3. lan-eremua: «Kirolaren elkarte-egitura»: genero-ikuspegia txertatzea	16
	4. lan-eremua: «Goi-mailako kirola eta kanpo-proiektzioa»: genero-ikuspegia txertatzea	19

SARRERA

Kirol-arloan emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna sustatzeko X. Legegintzaldirako Planak 4 lan-arlo ditu:

1. Genero-ikuspegia txertatzea kiroleko lan-arloko prozesuetan, generoko maistreaming-aren bidez.
2. «Euskadi, ariketa fisikoaren erreferentzia»: genero-ikuspegia txertatzea.
3. «Kirolaren elkarre-egitura»: genero-ikuspegia txertatzea
4. «Goi-mailako kirola eta kanpo-proiektzioa»: genero-ikuspegia txertatzea

Arloek helburu orokorrak eta berariazkoak dituzte, eta horien arabera zehaztu dira urtero egin beharreko ekintzak.

Honako agiri honetan 2014 urtean egindako ekintzak ebaluatu dira.

HELBURU OROKORRAK:

1.1. Berdintasunerako **egiturak eta koordinazio-estrategiak** sendotzea

HELBURU ESPEZIFIKOAK:

- Berdintasunerako sailen arteko koordinazio-egituretan parte hartzen jarraitzea.
- Saileko berdintasun-programaren agiria bultzatu eta koordinatzea Zuzendaritzaren barnean.
- Erkidego, Estatu eta nazioarte mailako egitura eta foro espezializatuetan parte hartzen eta kolaboratzen jarraitzea, jarraibide egokiak, esperientziak eta txostenak elkar trukatzeko.
- Genero eta kirol arloko lantaldea bultzatzen jarraitzea.

EKINTZAK:

1.1.1. Saileko Berdintasuneko Taldearekin lankidetzan jardutea EAEko emakumeen eta gizonen berdintasunerako VI. plana sustatzeko kirol arloan, Eusko Jaurlaritzako Gazteria eta Kirol Zuzendaritzaren Sailaren bidez eta Berdintasunerako Programa-agiria erabilia.

Arduradunak: Berdintasuneko teknikariak / Elisabet Altube / Dorleta Ugalde

Epea: Urte osoan zehar

Aurrekontua: 50 lanordu

Deskribapena: aldian behin bilduko dira Sailen Berdintasunerako taldeburuarekin, 2014an kirol sektorerara bideratutako berdintasunerako politiken diseinuari, programazioari eta ebaluazioari buruzko informazioa eta aholkuak elkar trukatzeko. Politika horiek VI. Planaren ondorio dira eta Sailen Berdintasunerako Programa-agirian jasota daude.

Adierazleak: komunikazio arina, aldian behingo bilerak, diagnostikoak sortzeko informazioa eskaintzea, programa-agiriak, jarraipen-txostenak eta ebaluazioak.

1.1.2. Kirol esparruan emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna sustatzeko plana sortzea X. Legegintzaldirako.

Planaren arduradunak: Jon Redondo / Elisabet Altube / Dorleta Ugalde / Berdintasuneko teknikaria

Epea: plana amaitzea, 2014ko ekaina. alderatzea eta barne-kontsulta egitea, 2014ko iraila.

Aurrekontua: 50 lanordu

Deskribapena: Plana amaitzea, alderatzea eta barne-kontsulta egitea. Plana aurkeztea zerbitzuaren bidez

Adierazleak: plana amaitzea eta 2014ko ekintzen programa sortzea.

1.1.3. Kirol esparruan emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna sustatzeko X. Legegintzaldirako planetik eratorritako 2014ko Ekintza Programa ebaluatzea.

Arduraduna: Dorleta Ugalde

Informazio-emaileak: guztiak

Epea: 2014ko abendua.

Aurrekontua: 50 lanordu

Deskribapena: Agiri honetan deskribatutako ekintzen betetze-maila ebaluatzea.

Adierazleak: ebaluazio-txostena sortzea.

1.1.4. Informazioa ematea International Working Group on Women and Sport –IWG– organoari (Emakumeak eta kirolari buruzko Nazioarteko Lantaldea)

Arduradunak: Dorleta Ugalde

Epea: 2014ko ekaina

Aurrekontua: Lanordua 1

Deskribapena: IWG on Women and Sportek txosten bat argitaratuko du Emakumeak eta kirola arloan azken 20 urteetako lorpenei buruz. Txosten hori egiteko, arloan diharduten erakundeei eskatu zieten galdetegi bati erantzuteko, egindako ekintzak ebaluatzeko asmoz. Eusko Jaurlaritzako Gazteria eta Kirol Zuzendaritza izan zen, hain zuzen, informazioa ematera deitutako erakundeetako bat.

Adierazleak: Galdetegiarri erantzutea, sortutako materialen gaineko informazioa ematea, txostena argitaratzea.

1.1.5. Emakumeak eta kirola arloko Munduko 6. Konferentzian parte hartzea eta hitzaldia ematea.

Arduradunak: Elisabet Altube / Dorleta Ugalde

Epea: Konferentzia egin zeneko data; 2014ko ekainaren 12tik 15era. Hitzaldia, ekainaren 14an.

Aurrekontua: 2.600 euro + 20 lanordua

Deskribapena: Eli Altubek eta Dorleta Ugaldek hartu zuten parte International Working Group on Women and Sportek Helsinkin (Finlandia) 2014ko ekainaren 12tik 15era antolatutako Emakumeak eta kirola arloko Munduko 6. Konferentzian. *Public policies aimed at promoting a good balance between high-level sports activity and motherhood* izeneko hitzaldia eman zuten, haurdunaldia eta/edo amatasuna eta goi mailako kirola uztartu nahi dituzten Euskadi Kirola Basque Team Fundazioko goi mailako kirolariei zuzendutako politikak zirena hizpide.

Adierazleak: Konferentzian parte hartzea, hitzaldia ematea, Konferentzian ateratako ondorioen txostena, Euskadiko goi mailako kirolarien egoerari buruzko *Emeki-emeki: citius, altius, fortius* ikus-entzunezko lana ingelesez azpizadtea.

1.1.6. Tratu txarrak jasandako haurrei buruzko Nazioarteko XII. Kongresuan hitzaldia ematea.

Arduradunak: Jon Redondo eta Dorleta Ugalde

Epea: 2014ko azaroa

Aurrekontua: 20 lanordua

Deskribapena: kongresuaren antolatzaileek Zuzendaritza gonbidatu zuten *Esku-hartze publikoa kirol arloko sexu-indarkerian* izeneko hitzaldia eman zezan. Hitzaldia 2014ko azaroan 6an izan zen Deustuko Unibertsitatean.

Adierazleak: Hitzaldia ematea. Hitzaldia Kongresuaren akten liburuan jasota geratzea.

1.1.7. Kirolen Kontseilu Gorenaren Emakumeak eta kirola arloko programei informazioa ematea

Arduradunak: Dorleta Ugalde

Epea: urte osoa

Aurrekontua: 2 lanordua

Deskribapena: Kirolen Kontseilu Goreneko Emakumeak eta kirola arloko programen zuzendariak informazioa eskatu digu Euskadi Kirola-Basque Team Fundazioak kirol-jarduera eta haurdunaldia edo amatasuna uztartu nahi dituzten goi mailako kirolarien berriazko tratamenduari buruz.

Adierazleak: Informazioa ematea

1.2. Estatistiketan eta azterlanetan genero-ikuspegia txertatzea.

HELBURU ESPEZIFIKOAK:

- Generoari eta kirolari buruzko berriazko azterlanak egitea, hautemandako behar kualitatibo zein kuantitatiboen arabera, kirol arloko eragozpenen eta bazterkeria-egoeren gaineko ezagutzan sakontzeko.
- Estatistikek eta azterlanek Legean adierazitako berdintasun-printzipiora egokitzeke betebeharra ote duten ikuskatzea eta ebaluatzea.

- Kirol arloan emakumeen eta gizonen arteko berdintasunari buruz sortutako material berriak biltzen jarraitzea.
- Azterlan eta informazio horiei denik eta hedapen zabalena ematea, kanal guztiak erabilia.

EKINTZAK:

1.2.1. Emakumeen kirolaren presentzia eta tratamendua orotariko euskal prentsan eta kirol egunkarietan ikergai izan duten hiru txosten egitea

Arduradunak: Elisabet Altube / Dorleta Ugalde

Epea: berariazko txostena, 2014ko martxoa; berariazko txostena, 2014ko ekaina; eta ondorio nagusien txostena, 2014ko uztaila.

Aurrekontua: 7.260 euro eta 20 lanordu (bilerak, txostenak berrikustea, etab.)

Deskribapena: 2013an hasitako prozesuari jarraipena emanez, 2014an lauko sorta bateko bi txosten egin dira, komunikabideek lehia-denboraldi osoan zehar idatzitako emakumeen kirolari buruzko albisteei emandako tratamendua aztertzen duena. Txosten bakoitzak astebetean argitaratutako albisteak aztertuko ditu denboraldiko hainbat unetan. Gainera, 2013-2014 denboraldian egindako lau txostenen ondorio nagusien amaierako txostena egin du.

Adierazleak: hiru txostenak egitea.

1.2.2. Emakume kirolariek komunikabideen bidez iritzi publikoaren aurrean emandako irudiari buruzko azterlana egitea.

Arduradunak: Elisabet Altube / Dorleta Ugalde

Epea: 2014ko iraila

Aurrekontua: 9.680 euro eta 20 lanordu (bilerak, txostenak berrikustea, etab.)

Deskribapena: Emakumeen kirolak prentsan duen presentzia eta tratamendua aztertu duten 2013-2014 kirol denboraldiko txostenen ondorioak oinarritzat hartuta, kirolariek beraiek adierazpenen, argazkien eta bestelakoen bidez iritzi publikoaren aurrean ematen duten irudiari buruz gogoeta egiteari premiazko iritzi zaio, kirolariek beraiekin egoera horiek bideratzeko eta zuzentzeko tresna gisa erabili daitezkeen kasuak hauteman eta ikusarazteko.

Adierazleak: Azterketa egitea.

1.2.3. Ingelesez azpidaztea Emeki-emeki: *citius, altius, fortius*. Goi mailako emakume kirolarien egoera Euskadin ikus-entzunezko lana, nazioartean erakusteko.

Arduradunak: Elisabet Altube / Dorleta Ugalde

Epea: 2014ko ekaina

Aurrekontua: 229,90 euro

Deskribapena: Emakumeak eta kirola aztergai duen Nazioarteko Lantaldeak agertutako interesa dela medio, ikus-entzunezko lana ingelesez azpidatzi da, Emakumeak eta kirola Nazioarteko Lantaldearen bitartez Emakumeak eta Kirola arloko Nazioarteko 6. Konferentzian erakusteko.

Adierazleak: azpidatziak osatu eta ikus-entzunezkoan xertratzea.

1.2.4. Kirolean emakumeen aurkako sexu-jazarpena eta -gehiegikeria prebenitzeko gida. Jarduera-protokolo bat diseinatuzko jarraibideak idazten laguntzea

Arduradunak: Berdintasuneko teknikariak / Elisabet Altube / Dorleta Ugalde

Epea: 2014ko uztaila

Aurrekontua: 20 lanordu (bilerak, txostenak berrikustea, etab.)

Deskribapena: Emakundeak txosten hori enkargatu du eta Gazteria eta Kirol Zuzendaritzaren laguntza jaso du txostena osatzeko prozesu osoan.

Adierazleak: egindako bilera-kopurua, txostena ikuskatzeko ordu-kopurua, egindako ekarpenen dokumentua.

1.2.5. Zuzendaritzaren urteko estatistikaren segimendua egitea, sexuaren arabera

Arduradunak: Dorleta Ugalde / guztiak eman dute informazioa

Epea: 2014ko iraila

Aurrekontua: 10 lanordu

Deskribapena: sailburuei datuak eskatzea, informazioa egokitzea eta kiroltako zerbitzuaren 2014ko datu esanguratsuenen txostena egitea, horren segimendua eta ebaluazioa egiteko
Adierazleak: federazio-lizentzia kopurua, goi mailako izendapenen kopurua, Euskadi Kirola Fundazioaren bekadun-kopurua, 2014an kideak aldatu diren aholku-batzordeak eta -organoak, Kirolaren Euskal Eskolaren jardueretan parte hartzea (ikasleek eta irakasleek), Euskadiko Eskolarteko Kirol Jokoetan parte hartzea, etab.

1.2.6. Kirol-arloan emakumeen eta gizonen arteko berdintasunari buruz 2014an sortutako materiala biltzea.

Arduradunak: Guztiak

Epea: Urte osoan zehar

Aurrekontua: 20 lanordu

Deskribapena: sektorean, nagusiki kirol erakundeen edo berdintasuna sustatzeko erakundeen aldetik, emakumeen eta gizonen berdintasunari buruz sortutako materialen bilduma.

Adierazleak: jasotako materialen zerrenda

1.2.7. Kirol-arloan emakumeen eta gizonen arteko berdintasunari buruz 2014an sortutako materiala ezagutaraztea

Arduradunak: Dorleta Ugalde / Guztiak

Epea: Urte osoan zehar

Aurrekontua: 20 lanordu

Deskribapena: Zuzendaritzaren barnea ezagutaraztea, Kirolaren Euskal Eskolaren buletinaren eta webgunearen bidez ezagutaraztea, EHUko Berdintasunerako posta-zerrendaren bidez ezagutaraztea (berdintasuna@ehu.es)

Adierazleak: bidalitako material eta material horien hartzailen zerrenda.

1.2.8. Kirol amateurrari, zehazki, emakumeen kirol jarduerari buruz Argia aldizkariak argitaratutako monografikoan parte hartzea. Gure iritzia blogean argitaratzea.

Arduradunak: Dorleta Ugalde

Epea: 2014ko urtarrila

Aurrekontua: 5 ordu

Deskribapena: arloko hiru adituk parte hartu zuten mahai-ingurua egin zen Argia aldizkariaren egoitzan, Hernanin. Lehenago, galdetegi bat jaso genuen, mahai-inguruko gaiet buruzkoa, aurrez presta genitzan. Monografikoaren moderatzaile eta elkarrizketatzaile Mikel Garcíak Argia aldizkarian duen blogean aipatzen du gure iritzia.

Adierazleak: Monografikoa paperean eta euskarri digitalean argitaratzea

<http://www.argia.com/argia-astekaria/2400/kirol-amateurra>

<http://www.argia.com/blogak/mikel-garcia/2014/03/10/gizonik-ez-lilatoian/>

1.2.9. Generoa eta kirola arloko adituen zerrenda eguneratzea

Arduradunak: Dorleta Ugalde / Guztiak

Epea: Urte osoan zehar

Aurrekontua: 2 lanordu

Deskribapena: Generoa eta kirola arloko adituen egungo zerrenda eguneratzea

Adierazleak: zerrenda eguneratua

1.3. Hizkuntza eta/edo beste komunikazio-elementu batzuk modu ez-sexistan erabiltzea.

HELBURU ESPEZIFIKOAK:

- Barne zein kanpo idazkiak hobetzea, komunikazio ez-sexista eta inklusiboa gero eta hedatuago egon dadin.

- Eusko Jaurlaritzako Kiroletako zerbitzuaren webguneko edukiak hobetzea, komunikazio inklusiboaren ikuspegia txertatuta.
- Zehazki, webguneko «Berdintasuna kirolean» atala hobetzea eta komunikazioaren erabilera ez-sexistetara bideratutako tresnak eskaintzea.

EKINTZAK:

1.3.1. Hizkuntza inklusiboaren erabilera indartzen jarraitzea Zuzendaritzaren eta Euskadi Kirola Fundazioaren jakinarazpen guztietan.

Arduradunak: Guztiak

Epea: Urte osoan zehar

Aurrekontua: 50 lanordu

Deskribapena: hizkuntzaren eta irudien erabilera ez-sexistarekin jarraitzea gure jardunean (mezu elektronikoak, posta, telefono-solasaldiak eta bestelako harremanak).

Adierazleak: gutunak, mezu elektronikoak, etab.

1.3.2. Genero-ikuspegia txertatzea Zuzendaritzako Kiroletako zerbitzuaren jardueren memorietan.

Arduradunak: Guztiak

Epea: Urte osoan zehar

Aurrekontua: 50 lanordu

Deskribapena: genero-ikuspegia txertatzea Kirolaren Euskal Eskolaren memorian, Euskadiko Eskolarteko Kirol Jokoen memorian, Ibilbideak-en memorian, Euskadi Kirola Fundazioaren memorian.

Adierazleak: memorietan hizkuntza integratzailea, irudi ez-sexistak eta estereotipoen bestelakoak eta berariazko edukiak erabiltzea.

1.3.3. Gazteria eta Kirol Zuzendaritzako webguneko «Berdintasuna kirolean» atala edukiz hornitzea.

Arduradunak: Dorleta Ugalde / Guztiak

Epea: Urte osoan zehar

Aurrekontua: 20 lanordu

Deskribapena: sartutako materiala web formatura egokitzea eta Zuzendaritzaren webgunean kargatzea.

Adierazleak: ezagutarazitako materialen zerrenda

1.4. Araudian berdintasunaren printzipioa txertatzea

HELBURU ESPEZIFIKOAK:

- Arauen aurretiazko inpaktu-ebaluazioa sistematikoki egiten jarraitzea, generoaren arabera, hala dagokionean.
- Araudian berdintasuna sustatzeko neurriak sartzea, izan aurretiazko ebaluazioak egin ondotik edo egin gabe.
- Araudian jazarpena eta sexu-gehiegikeriak prebenitzea modu mailakatuan sartzea eta/edo dagoeneko sartutako edukiak egokitzea.

EKINTZAK:

1.4.1. Kirol lanbideak izateari eta horietan jarduteari buruzko legearen aurreproiektua egitea.

Arduradunak: Elisabet Altube

Epea: 2014ko abendua

Aurrekontua: 20 lanordu

Deskribapena: aipatutako Legeak generoaren arabera izango duen inpaktuaren aurretiazko ebaluazioaren txostena egitea.

Adierazleak: txostena egitea

1.4.2. Kiroleko dopinaren aurkako Legea aldatzeko Legearen aurreproiektua egitea.

Arduradunak: Carolina Muro

Epea: 2014ko abendua

Aurrekontua: 20 lanordu

Deskribapena: genero-ikuspegia txertatzea

Adierazleak: txostena egitea edo, hala dagokionean, txostenik behar ez izatearen justifikazioa

1.5. Aurrekontuetan genero-ikuspegia txertatzea.

HELBURU ESPEZIFIKOAK:

- Aurrekontuen osaera hobetzea, genero-ikuspegia kontuan hartuz.
- Plana gauzatzera bideratutako berariazko urteko aurrekontua xedatzea.
- Xedatutako aurrekontua plangintzaren premiak betetzeko egokia ote den ikuskatzea.

EKINTZAK:

1.5.1. Kirolean emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna sustatzeko programaren aurrekontu-saila sartzea EAEko 2014rako aurrekontu orokorretan.

Arduradunak: Jon Redondo

Epea: 2014ko urtarrila

Aurrekontua: 9.000 euro

Deskribapena: zenbatekoa jaitsi arren, berariazko aurrekontu-saila izateari eutsi zaio.

Adierazleak: aurrekontu-sailaren zenbakia

1.5.2. EAEko 2014rako aurrekontu orokorretan legebiltzar-zuzenketa bat sartzea emakumeek kirolean parte hartzea sustatzeko, Araski emakumeen saskibaloia klubarentzat.

Arduradunak: Jon Redondo

Epea: 2014ko abendua

Aurrekontua: 50.000 euro

Deskribapena: Araski emakumeen saskibaloia klubari emandako diru-laguntza izenduna, Araban emakumeen saskibaloia garatzeko. 35.000 euroko lehen ordainketa maiatzean izango da, eta gainerakoa zenbateko osoaren justifikazioaren aurretiazko onarpena dela medio.

Adierazleak: aurrekontu-sailaren zenbakia

1.5.3. Emakumeen XXVII. Euskal Bira emakume txirindularien lasterketa laguntzea, Euskadi-Basque Country iragarkien bidez.

Arduradunak: Jon Redondo

Epea: 2014ko ekaina

Aurrekontua: 2.950 euro

Deskribapena: Eusko Jaurilaritzaren Euskadi- Basque Country logotipoa sartzea Emakumeen XXVII. Euskal Bira emakumeen txirindulari-lasterketan

Adierazleak: logotipoa hainbat euskarritan sartzea

1.6. Kontratu, diru-laguntza eta hitzarmenetan berdintasunerako klausulak sartzea

HELBURU ESPEZIFIKOAK:

- Berdintasunerako klausulak sartzen jarraitzea eta/edo sartutakoak hobetzea kirol arloko diru-laguntzetan, hitzarmenetan eta beketan.

- Berdintasunerako klausulak sartzen jarraitzea eta/edo sartutakoak hobetzea kirol arloko kontratuetan.

EKINTZAK:

1.6.1. Berdintasunaren berariazko klausula sartzea Euskadiko Eskolarteko Kirol Jokoen antolaketarako aholkularitza teknikoaren kontratuan.

Arduradunak: Bakarne Agirre / Dorleta Ugalde

Epea: 2014ko azaroa

Aurrekontua: 2 ordu

Deskribapena: berariazko klausulak txertatu dira kontratuaren betekizun teknikoen artean izapide-fasean.

Adierazleak: txertatutako klausulak

1.6.2. Euskadiko kirol federazioen 2014ko kirol programak finantzatzeko diru-laguntzen deialdia arautzen duen Aginduan berdintasunari garrantzia emateko berariazko klausulak txertatzea.

Arduradunak: Carolina Muro /Bakarne Agirre

Epea: 2014ko apirila

Aurrekontua: diru-laguntza, guztira: 2.350.000 euro

Deskribapena eta adierazleak:

AGINDUA, 2014ko apirilaren 16koa, Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kulturako sailburuarena, euskal kirol federazioen 2014ko kirol programak finantzatzeko diru-laguntzen deialdia arautzeko dena

<http://www.lehendakaritza.ejgv.euskadi.net/r48-bopv2/es/bopv2/datos/2014/04/1401798a.pdf>

3.f. artikulua Kirol programaren memoria esplikatiboan azaldu beharko dira, besteak beste, federazioak desberdintasunak ezabatzeke eta emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna sustatzeko gauzatutako jarduerak.

3.j. artikulua Erantzukizunpeko adierazpena, egiaztatzen duena entitate eskatzaileak ez duela diru-laguntza edo laguntza publikoak eskuratzea eragozten dion zehapen administratiborik edo penalik jaso, ezta horretarako legezko inolako debekurik ere, sexu-bereizkeriagatiko debekuak barne, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legearen azken xedapenetan seigarrenean xedatutakoarekin bat etorrita (V. eranskina).

1.6.3. 2014an egingo edo hasiko diren nazioarteko eta kategoria absolutuko kirol lehiaketa ofizialetan parte hartzeko diru-laguntzak emateko erregimena ezartzen duen Aginduan berdintasuna sustatzeko berariazko klausulak txertatzea.

Arduradunak: Carolina Muro /Bakarne Agirre

Epea: 2014ko urria

Aurrekontua: diru-laguntza, guztira: 340.000 euro

Deskribapena eta adierazleak:

AGINDUA, 2014ko uztailaren 1ekoa, Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kulturako sailburuarena, 2014an egin edo hasiko diren nazioarteko eta kategoria absolutuko kirol lehiaketa ofizialetan parte hartzeko diru-laguntzak emateko erregimena ezartzen duena.

<http://www.lehendakaritza.ejgv.euskadi.net/r48-bopv2/es/bopv2/datos/2014/07/1403203a.pdf>

1.4. artikulua Edonola ere, ezin izango dute modalitate honetako diru-laguntzarik jaso, eta, beraz, deialdi honetatik kanpo geratutako dira, bi sexuen arteko tratu-berdintasuna bermatzen ez duten proiektuek.

3.2. artikulua Ezin izango dute deialdi honetan aurreikusitako diru-laguntzarik eskatu, kasuan kasuko zigorrak ezarritako epean zehar, laguntza publikoak lortzeko zigor administratibo edo penalen bat duten pertsonak, ez eta horretarako gaitasuna kentzen dien legezko debekuren bat dutenek ere. Halaber, ezin izango dute diru-laguntzarik eskatu, zehapenak

ezarritako epean zehar, sexu-bereizkeria dela-eta zigor administratibo edo penalen bat dutenek, otsailaren 18ko 4/2005 Legeak, Emakumeen eta Gizonen berdintasunerakoak, azken xedapenetatik seigarrenean ezarritakoaren arabera.

15.f. artikulua Sexismorik gabeko hizkera erabiltzea, gizon eta emakumeen rolei dagokienez, eta erabilera estereotipatuak ez direla erabiliko bermatzea, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legeak agintzen duenari jarraituz. Gizon eta emakumeen rolei dagokienez, erabilera estereotipatuak ez direla erabiliko bermatuko da.

l. eranskina. Hartutako konpromisoa dela medio, erakunde eskatzaileak bi sexuen arteko tratu-berdintasuna bermatuko du kirol lehiaketetan.

1.6.4. 2014ko goi-mailako kirol-lehiaketak antolatzeko diru-laguntzen deialdia eta esleipena arautzen dituen Aginduan berdintasunari garrantzia emateko berariazko klausulak txertatzea.

Arduradunak: Carolina Muro /Bakarne Agirre

Epea: 2014ko urria

Aurrekontua: diru-laguntza, guztira: 245.000 euro

Deskribapena eta adierazleak:

AGINDUA, 2014ko irailaren 3koa, Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kulturako sailburuarena, 2014an goi mailako kirol lehiaketak antolatzeko diru-laguntzen deialdia eta esleipena arautzen dituena.

<http://www.lehendakaritza.ejgv.euskadi.net/r48-bopv2/es/bopv2/datos/2014/09/1403835a.pdf>

1.5. artikulua Edonola ere, ezin izango dute modalitate honetako diru-laguntzarik jaso, eta, beraz, deialdi honetatik kanpo geratutako dira, bi sexuen arteko tratu-berdintasuna bermatzen ez duten proiektuek.

3.2. artikulua: Ezin izango dute deialdi honetan aurreikusitako diru-laguntzarik eskatu, kasuan kasuko zigorrak ezarritako epean zehar, laguntza publikoak lortzeko zigor administratibo edo penalen bat duten pertsonak, ez eta horretarako gaitasuna kentzen dien legezko debekuren bat dutenek ere. Halaber, ezin izango dute diru-laguntzarik eskatu, zehapenak ezarritako epean zehar, sexu-bereizkeria dela-eta zigor administratibo edo penalen bat dutenek, otsailaren 18ko 4/2005 Legeak, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerakoak, azken xedapenetatik seigarrenean ezarritakoaren arabera.

6.5. artikulua. Betekizunak: Erakunde eskatzaileak bi sexuen arteko tratu-berdintasuna bermatuko du kirol lehiaketetan.

1.6.5. Emakumeen kirola sustatzeko berariazko klausulak txertatzea Euskadi Kirola Fundazioak 2014an goi mailako kirol-bekak emateko oinarrien iragarkian.

Arduradunak: Euskadi Kirola Fundazioa

Epea: argitalpen-data, 2014ko urtarrilak 29

Aurrekontua: 20 lanordu

Deskribapena eta adierazleak: iragarkiak lehentasuna emango dio emakumeen kirolari, goi mailako kirolari izateko bultzada berezia behar dutela iritzita.

IRAGARKIA, Euskadi Kirola Fundazioak 2014an goi mailako kirol-bekak emateko oinarriak publiko egiten dituena.

[Goi mailako kirolen oinarrien iragarkia, 2014](#)

l. eranskina, 4. irizpidea. 2014ko Euskadi Kirola Bekak jasotzeko Euskadi Kirola Fundazioaren lehentasunezko kirol-modalitateak honako hauek dira: emakumezkoen belar gaineko hockeya, emakumezkoen eskubaloia, pistako ziklismoa eta eslalom-piraguismoa.

l. eranskina, 6. irizpidea. Salbuespenez, 2013an Euskadi Kirola beka baten onuradun izan diren kirolariek Euskadi Kirola Fundazioak ematen dituen zerbitzu osagarriak erabiltzeko eskubidea izango dute 2014an, oinarri hauetako 4. artikuluko 2. lerrokadan adierazitakoarekin bat, nahiz eta 1. irizpidean zehaztutako kirol emaitzarik ez egiaztatu eta betiere oinarri hauetan ezarritakoa betez gero.

Azken irizpide hori kirolari haurdunei zuzenduta dago, kirol prestakuntzarekin normaltasunez jarraitu ezin dutenerako. Bekak eta prestazioek jasotzen jarraituko dute haurdunaldiaren eta erditze ondoko urtean.

1.7. Emakumeen eta gizonen arteko **ordezkaritza orekatua sustatzea eta genero-ikuspegia organoetan eta epaimahaietan txertatzea.**

HELBURU ESPEZIFIKOAK:

- Emakumeen eta gizonen ordezkari itzazko klausulak sartzea sustatzen jarraitzea.
- Kontseiluen edo organoen funtzioen eta helburuen artean berdintasuna sartzea bultzatzea.
- Berdintasuneko pertsona edo erakunde adituek batzordeetan eta kide anitzeko organoetan parte hartzea sustatzea.
- Ordezkaritzan orekarik ez egotearen kausak aztertzea eta balizko konponbideak hautematea.

2014an ez da batzorderik sortu, eta orain arte sortutakoak ere ez dira aldatu.

2. LAN-EREMUA:

2. «Euskadi, erreferentzia jarduera fisikoan»: genero-ikuspegia txertatzea

HELBURUAK:

2.1. Tratu eta aukera berdintasuna sustatzen jarraitzea **Eskola Kirolean**

HELBURU ESPEZIFIKOAK:

- Nesken eta mutilen arteko desberdintasunak aztertzen jarraitzea eskola-kirolean, kirola sustatzeko politika publikoak birbideratzen jarraitzeko.
- Emakumezko kirolarien eta gazteen esperientzia positiboetara heltzea eta jardunbide egoki gisa hedatzea.
- EAEko Eskola Kirolen antolamenduan genero ikuspegia txertatzen jarraitzea.

2.2. Tratu eta aukera berdintasuna sustatzen jarraitzea **Kirol Egokituan**

HELBURU ESPEZIFIKOAK:

- Dibertsitate funtzionala duten neskek eta emakumeek aurre egin beharreko genero-hesiak identifikatzea.
- Dibertsitate funtzionala duten emakumezko kirolarien eta gazteen esperientzia positiboetara heltzea eta jardunbide egoki gisa hedatzea.
- Gaur arte egindako jarduerak aztertzea eta etorkizuneko ekintzak proposatzea.

2.3. Tratu eta aukera berdintasuna sustatzen jarraitzea **Unibertsitate Kirolean**

HELBURU ESPEZIFIKOAK:

- Gazteen parte hartze kualitatiboari eta kuantitatiboari buruzko azterlan egitea eta genero-hesiak iraunarazten dituzten faktoreak identifikatzea, hesi hori eraistera bideratutako estrategiak proposatzeko.
- EAEko Unibertsitateko Txapelketetan genero ikuspegia txerta dadin sustatzea.

2.4. Tratu eta aukera berdintasuna txertatzea **Mugiment, ariketa fisikorako plan estrategikoa** gauzatzeko garaian

HELBURU ESPEZIFIKOAK:

- Jarduera fisikoak praktikatzeko eragozten duten genero-hesiak identifikatzea.
- Oztopen analisiari eustea, hala nola kirola egiteko emakumeen eta gizonen arrazoi desberdintasunenari.
- Emakumeek ariketa fisikoa egitea sustatzea, espazio eta ikastaro gehiago eskainita, beren beharrei eta interesei erantzuteko eskaintza dibertsifikatuaren bidez.

- Ibilbideak proiektuan genero-ikuspegiaren pertinentzia aztertzea, ondoren ikuspegi hori txerta dadin proposatzeko.

EKINTZAK:

2.4.1. Emakumeen kirol jarduerarako sarbidea hobetu eta erraztea Mugiment ariketa fisikoko plan estrategikoan

Arduradunak: Mikel Izquierdo / Endika Muruamendiaraz

Epea: Urte osoan zehar

Aurrekontua: 20 ordu

Deskribapena: oro har, gizonek emakumeek baino kirol gehiago egin arren, emakumeek gehienbat osasuna hobetzera bideratutako ariketa fisikoak egiten dituzte. Horrenbestez, funtsean, Mugiment emakumeei zuzenduta dago.

Adierazleak: Genero-ikuspegia txertatzea Mugiment planean.

2.5. Tratu eta aukera berdintasuna txertatzea Kirolaren Euskal Eskolan

HELBURU ESPEZIFIKOAK:

- Genero-ikuspegia txertatzea Kirolaren Euskal Eskolak eskainitako hezkuntza-ekintzen programaren diseinuan.
- Ikasmaterialak egokitzea eduki hezkideak izan eta komunikatzeko modu ez-sexistak erabili ditzaten.
- Kirolaren Euskal Eskolako irakasleen ordezkariak orekatuagoa izateko neurriak hartzea, nagusiki, sexu bateko edo besteko pertsonak azpiordezkaturik dauden horietan eraginez.
- Kiroleko berdintasunari buruzko ikastaro bat eskaintzearen egokitasuna aztertzea
- Generoan eta kirolean espezialistak diren irakasleen datu-base bat sortu eta mantentzea.

EKINTZAK:

2.5.1. Kirolaren Euskal Eskolaren irakaskuntzan emakume irakasleen ratioa areagotzeko ahaleginari eustea

Arduradunak: Joseba Bujanda

Epea: Urte osoan zehar

Aurrekontua: 5 lanordu

Deskribapena: Eskolaren irakaskuntzan edota eskolaren bitartez jasotakoan emakume irakasleen kopurua handitzen ahalegintzea.

Adierazleak: hazkunde-ehunekoa

2.5.2. Berdintasunari edo emakumeei loturiko berariazko edukiak txertatzea Kirolaren Euskal Eskolan sortutako materialean.

Arduradunak: Joseba Bujanda

Epea: Urte osoan zehar

Aurrekontua: 20 lanordu

Deskribapena: Eskolak sortutako materialean hizkuntza inklusiboa eta irudi egokiak erabiltzeaz gain, emakumeei eta/edo berdintasunari loturiko edukiak txertatzea sustatuko da.

Adierazleak: txertatutako berariazko edukiak

2.5.3. Kirol arloetan adituak diren emakumeen zerrenda eguneratzea.

Arduradunak: Joseba Bujanda / Dorleta Ugalde

Epea: Urte osoan zehar

Aurrekontua: 2 lanordu

Deskribapena: urtero eguneratzea kirol esparru zeinahitan adituak diren emakumeen zerrenda.
Adierazleak: zerrenda berrikusi eta eguneratzea.

3. LAN-EREMUA:

3. «Kirolaren elkarte-egitura»: genero-ikuspegia txertatzea

HELBURUAK:

3.1. Genero-ikuspegiaren eta aukera-berdintasunaren printzipioa txertatzea sustatzea **EAEko Kirol Federazioen Elkarte**an

HELBURU ESPEZIFIKOAK:

- Genero-ikuspegia elkarte

EKINTZAK:

3.1.1. Aholku teknikoa eskaintzea euskal kirol-federazioen proiektua diseinatu eta garatzeko garaian, gauzatzeko baliabideak emanda.

Arduradunak: Rubén Bueno

Epea: Urte osoan zehar

Aurrekontua: 50 lanordu

Deskribapena: emakumeen kirol egoeraren diagnostikoa egitea, kirola egiten duten emakumeak ikusaraztea, federazioen araudiak indarreko legedira egokitzea, emakumeen parte-hartzea sustatzea presentzia txikiagoa duten modalitateetan eta estamentuetan, beste erakunde batzuekin esperientziak elkar trukatzeko.

Adierazleak: egindako ekintzen zerrenda

3.1.2. Emakumeen euskal futbol selekzioaren nazioarteko partida antolatzea.

Arduradunak: Euskal Kirol Federazioen Batasuna / Jon Redondo

Epea: 2014ko maiatza

Aurrekontua: 2.990 euro

Deskribapena: Azpeitiko futbol-zelaian jokatu zen partida, 2014ko maiatzaren 10ean, Irlandaren aurka.

Adierazleak: partida jokatzeko.

3.1.3. Emakumeen euskal futbol selekzioaren nazioarteko partida antolatzea.

Arduradunak: Euskal Kirol Federazioen Batasuna / Jon Redondo

Epea: 2014ko abendua

Aurrekontua: 2.000 euro

Deskribapena: Barakaldon jokaturako partida, 2014ko abenduaren 27an, Kataluniako selekzioaren aurka.

Adierazleak: partida jokatzeko.

3.1.4. Emakumeen euskal eskubalo selekzioaren nazioarteko partida antolatzea.

Arduradunak: Euskal Kirol Federazioen Batasuna / Jon Redondo

Epea: 2014ko abendua

Aurrekontua: 2.000 euro

Deskribapena: Irunen jokaturako partidak, 2014ko abenduaren 6an eta 8an, Kubaren aurka.

Adierazleak: partida jokatzeko.

3.2. Genero-ikuspegiaren eta aukera-berdintasunaren printzipioa txertatzea sustatzea **EAEko Kirol Federazioetan**

HELBURU ESPEZIFIKOAK:

- Berdintasuna sustatzea, kirol federazioen kalitatezko estatutuen, araudien eta kudeaketaren ikur gisa.
- Emakumeen gaikuntza sustatzea kirol lidergoan, oinarrizko trebetasunak eta gaitasunak eskuratzearen bitartez.
- Federazio-kirolaren irudia aldatzea, neskei egokitzeko; alderdi ludikoa azpimarratuta, eta, beren berriazko premiak aipatzen dituzten mezuen bidez.
- Federazioek sexu-jazarpenari buruzko legedia/protokoloak antolaketa-egituran eta bultzatzen duten kirol-jardueran aplikatzea sustatzea.
- Emakumezkoen euskal selekzioak, kasuan kasuko modalitatekoak eta diziplinakoak, eta kanpoan duten irudia indartzea.

EKINTZAK:

3.2.1. Euskal Mendi Federazioa generoaren ikuspegitik aztertzea eta esku hartzeko lerroak ezartzea.

Arduradunak: Euskal Mendi Federazioa / Euskal Kirol Federazioen Batasuna

Epea: 2014ko ekaina

Aurrekontua: 50 ordu

Deskribapena: Euskal Mendi Federazioaren zuzendaritza-batzordeak premiazko iritzi zion antolaketa eta jardura ebaluatzeari, barne-antolaketan eta funtzionamenduan, aurrekontuen kudeaketan, kirol proiektuan, prestakuntza-planean eta komunikazio-planean esku-hartze lerroak ezartzeko.

Adierazleak: Plana egin eta aurkeztea

3.2.2. Emendik, Emakumeak eta mendia proiektua.

Arduradunak: Euskal Mendizale Federazioa

Epea: 2014-2017

Aurrekontua: 50 ordu

Deskribapena: emakumeek kirol horretan parte hartzea sustatzera bideratutako proiektua

Adierazleak: emakumeen federazio-lizentzien kopurua handitzea, proposatutako ekintzak gauzatzea.

3.3. Genero-ikuspegia eta aukera-berdintasunaren printzipioa txertatzea sustatzea **bestelako kirol erakundeetan**

HELBURU ESPEZIFIKOAK:

- Genero-ikuspegiak kirol klubetan txertatzeko eredu bat garatzea (argibideak eta jarraibide egokiak).
- Sexu-jazarpenik eta -gehiegikeriarik gabeko kirol-ingurune segurua sortzeko konpromisoaren erakusle den erakunde-adierazpena egitea.
- Tokiko kirol-erakundeetan kirol-arloko sexu-jazarpena eta -gehiegikeria prebenitzera eta desagerraraztera bideratutako neurriak hartzea.

4. LAN-EREMUA:

4. «Goi-mailako kirola eta kanpo-proiektzioa»: genero-ikuspegia txertatzea

HELBURU OROKORRAK:

4.1. Genero-ikuspegia txertatzea **goi mailako kirolaren errekonozimendu prozesuetan** (uztailaren 20ko 2013/2010 Dekretua, Goi Mailako Kirolari buruzkoa)

HELBURU ESPEZIFIKOAK:

- Goi mailako kirolari, entrenatzaile, epaile eta zentro izendatuen zerrendak aztertzea, bai sarbideari dagokionez, bai errekonozimendu-prozesuei zein Dekretuaren babespeko onurei dagokienez, hobekuntzak egite aldera.

EKINTZAK:

4.1.1. Goi mailako kirolari, entrenatzaile edo epaile izendatzeko betekizunak berrikustea.

Arduradunak: Usue Zatika / Mari Mar García

Epea: 2014ko abendua

Aurrekontua: 20 lanordu

Deskribapena: Goi mailako kirolari, entrenatzaile edo epaile izendatzeko betekizunak berrikustea.

Adierazleak: txostena sortzea

4.2. Genero-ikuspegia eta aukera-berdintasunaren printzipioa txertatzea sustatzea Basqueteam , Euskadi Kirola Fundazioan

HELBURU ESPEZIFIKOAK:

- Genero-ikuspegia txertatzen jarraitzea Fundazioaren lan-egituran eta prozesuetan.
- Genero-ikuspegia txertatzen jarraitzea Fundazioaren jardunean eta zerbitzu-eskaintzan.
- Goi mailako emakume eta gizon kirolarien alderdi diferentzialak aztertzen sakontzen jarraitzea.
- Goi mailako kirolarien aurkako sexu-jazarpena eta -gehiegikeria prebenitzera eta desagerraraztera bideratutako neurriak hartzea
- Emakumeen berariazko babesleen bilaketa sustatu eta laguntzea
- Goi mailako kirolarien sareak eta topaketak sustatzea, beren kirol, ekonomia eta gizarte eskubideak baliarazteko.
- Hedabide publiko eta pribatuetan emakume kirolarien jarduerak ikusgarri egiteko berariazko ekintzak gauzatzea.

EKINTZAK:

4.2.1. Euskadi Kirola Fundazioak eta Euskaltelek sinatutako kontratua, emakumeen kirol emankizunen finantza-koprodukzioarena.

Arduradunak: Euskadi Kirola Fundazioa

Epea: sinadura-eguna; 2014ko ekainak 15

Aurrekontua: 63.000 euro 20 lanordu

Deskribapena: Euskaltelek Fundazioarekin goi mailako euskal kirolarien irudia sustatzeko jardueretan elkarlanean aritzeko interesa du; zehazki, bere marka eta Euskadiko goi mailako emakumeen kirola eta kirol egokitua elkar-lotu nahi ditu.

Adierazleak: koprodukzio horren babesean emandako emakumeen kirol-emankizunen kopurua, babeslearen logotipoa agertzea fundazioaren ekitaldietako prentsaurrekoetan, logotipoa agertzea kirolari egokituen jantzietan, webgunean lehentasunezko presentzia izatea.

4.3. Emakume kirolari ezagunenek komunikabideetan presentzia eta errekonozimendu handiagoa izatera bideratutako neurriak hartzea

HELBURU ESPEZIFIKOAK:

- Emakumeen lehia-kirola bultzatzen jarraitzea, ikusgarri eginda eta kirol nahiz gizarte errekonozimendua eskainita
- Lankidetzarako estrategiak diseinatzea komunikabide publiko eta pribatuekin

EKINTZAK:

4.3.1. Goi mailako emakume kirolarien berriazko iragarkiak errodatzea

Arduradunak: Rafa Mungia – Euskadi Kirola Fundazioa

Epea: 2014ko abendua

Aurrekontua: kontratuaren zenbateko osoaren zati bat

Deskribapena: bi iragarki errodatu dira, 2014ko azarotik aurrera ikusi ahal izan direnak; 14 goi mailako emakume kirolarik hartu dute parte.

Adierazleak: iragarkiak sortu eta ematea

4.3.2. Goi mailako kirolarien berriazko bideoak egitea, komunikabideetan emateko (nagusiki, EITB taldeak).

Arduradunak: Rafa Mungia – Euskadi Kirola Fundazioa

Epea: 2014ko abendua

Aurrekontua: kontratuaren zenbateko osoaren zati bat

Deskribapena: guztira, 16 bideo promozional grabatu dira, 8na emakume eta gizon kirolari eta emakumeen ekipoen edo atleten 2 entrenatzaile ageri direnak.

Adierazleak: bideoak ematea

4.3.3. Goi mailako kirolarien ibilbidea eta lorpenak ikusarazteko prentsaurrekoak egitea.

Arduradunak: Rafa Mungia – Euskadi Kirola Fundazioa

Epea: 2014ko urtarrila

Aurrekontua: 3 lanordu

Deskribapena: Eunate Agirrek erretiroa hartuko zuela iragartzeko prentsaurrekoa

Adierazleak: aurten 3 prentsaurreko egin dira.

4.3.4. Arabako emakumeen kirolari buruzko informazioa ematen duen webgunea laguntzea: www.dxffem.com

Arduradunak: Jon Redondo

Epea: 2014ko abendua

Aurrekontua: 2.662 euro

Deskribapena: Eusko Jaurilaritzaren Euskadi- Basque Country logotipoa sartzeko orri nagusian

Adierazleak: logotipoa sartzeko.

4.4. Proiektzioa duten goi mailako kirolarien laguntza tekniko-medikoko zerbitzuetan berdintasun printzipioa txerta dadin sustatzea

HELBURU ESPEZIFIKOAK:

- Proiektzioa duten goi mailako emakume eta gizon kirolarien alderdi diferentzialak aztertzen sakontzen jarraitzea.
- Unibertsitateekin hasitako lankidetzaz-estrategiei jarraipena ematea, ikasketak eta goi mailako zein oihartzun handiko kirol jarduerak uztartu ahal izateko.

EKINTZAK:

4.4.1. Gure Erkidegoko kirolari talentudunak egindako proba fisikoak jasota dauden datu-basea elikatzea.

Arduradunak: Mari Mar Garcia / Idoia Escurza

Epea: Urte osoan zehar

Aurrekontua: 20 lanordu

Deskribapena: etorkizun oparoko euskal kirolariek egindako proba fisikoen segimendua eta kontrola egitea.

Adierazleak: babesaren emandako kirolari talentudunen kopurua eta egindako probak

4.4.2. Faturako Hobekuntza Teknikorako Zentroaren zerbitzuak erabiltzen dituzten kirolari guztien erregistroa kudeatzea.

Arduradunak: Usue Zatika

Epea: Urte osoan zehar

Aurrekontua: 20 lanordu

Deskribapena: Hobekuntza Teknikorako Zentroaren zerbitzuak erabiltzen dituzten pertsona guztien erregistroak bateratzea.

Adierazleak: erregistro berria sortzea

4.4.3. Hiru teknifikazio-proiektu sinatzea beste hainbeste Euskal Kirol Federazioekin.

Arduradunak: Jon Redondo / Mari Mar García / Usue Zatika / Idoia Escurza

Epea: Urte osoan zehar

Aurrekontua: 200 lanordu

Deskribapena: Euskal Atletismo Federazioarekin, iraupen-lasterketak eta jaurtiketak lagundu eta garatzeko; Euskal Errugbi Federazioarekin, emakumeen 7ko errugbia indartze aldera, 2016ko Joko Olinpikoak direla medio; eta Euskal Piraguismo Federazioarekin, emakumeen C1 kategoria, piraguismo-slaloma, programa olinpikoan sartzea lortzea.

Adierazleak: lagundutako atleta kopurua, C1 programa olinpikoan sartzen den edo ez

4.4.4. Euskal unibertsitateen talentudun emakumeak erakartzea, 2016ko Rio de Janeiroko Joko Olinpikoak direla medio, 7ko errugbi-taldea sendotzearen.

Arduradunak: Mari Mar Garcia / Jon Redondo

Epea: Urte osoan zehar

Aurrekontua: 50 lanordu

Deskribapena: talentua erakartzeko programa abiarazi da euskal unibertsitateetan. EHuren Gasteizko campusean hartu du indar gehien.

Adierazleak: erakarririk atleten kopurua

4.4.5. Gazteria eta Kirol Zuzendaritzak eta hiru foru aldundiek lankidetzaz-akordioak sinatzea, kirolari talentudunen ibilbidea babesteko.

Arduradunak: Jon Redondo / Mari Mar García / Usue Zatika / Idoia Escurza

Epea: Urte osoan zehar

Aurrekontua: 200 lanordu

Deskribapena: hiru foru aldundietako kirolari talentudunak lankidetzaz-akordioak sinatzea kirolari gazte talentudunen kirol ibilbideari laguntza, garatzeko modua eta jarraikotasuna emateko,

lurralde historikoen eskumenen mende dagoenez alderdi hori; horretarako, prestakuntzarako eta proba fisikoetarako laguntza emango da.

Adierazleak: babesa emandako kirolarien kopurua

4.5. Genero-ikuspegia eta aukera-berdintasunaren printzipioa txertatzea sustatzea Euskadiko Dopinaren Aurkako Agentzian

HELBURU ESPEZIFIKOAK:

- Agentzian genero-ikuspegiaren pertinentzia aztertzea, etorkizuneko jarduerak proposatzeko.

4.6. Genero-ikuspegiaren eta aukera-berdintasunaren printzipioa txertatzea sustatzea berrikuntza-proiektuen garapenean

HELBURU ESPEZIFIKOAK:

- Berdintasunaren printzipioa txertatzea Europako REPLAY proiektuan (Reusable low-cost platform for digitalising and preserving traditional participative sports)

EKINTZAK:

Eusko Jaurlaritzako Gazteria eta Kirol Zuzendaritza Europako Replay proiektuaren kideetako bat da. Proiektu horrek Europar Batasunaren VII. esparru-programaren finantzaketa izango du, eta kulturaren errotutako gutxien kirolak kontserbatu, babestu eta garatzeko helburua. Horretarako, kirol jarduna mugimendu-sentsoreen bidez erregistratuko da. Proiektua 2013ko martxoaren 1ean hasi zen eta hiru urteko iraupena du. Eusko Jaurlaritzari dagokionez, euskal pilotako hainbat modalitate erregistratuko dira.

4.6.1. Gomazko paletaren modalitatea Replay proiektuan sartzea.

Arduradunak: Jon Redondo / Dorleta Ugalde

Epea: 2014ko otsaila

Aurrekontua: 30 lanordu

Betetze-maila: Eusko Jaurlaritzak euskal pilotako hiru modalitate hautatu ditu Replay proiektuan lantzeko; horietako bat, gomazko paleta, ia esklusiboki emakumeek jokatutakoa da. Modalitate hau sartu da euskal pilotaren gainerako modalitateetan ia emakume jokalaririk ez dagoelako.

4.6.2. Euskal emakume pilotarien parte hartzeari buruzko kapitulua txertatzea Replay proiektuan.

Arduradunak: Jon Redondo / Dorleta Ugalde

Epea: 2014ko martxo

Aurrekontua: 30 lanordu +Luxenburgo

Betetze-maila: alderdi teknikoez gain, Replay proiektuan ezinbestekoa da garapenari buruzko aldian behingo txostenak entregatzea. Eusko Jaurlaritzaren eginkizunetako bat Replay proiektuko kirol eta joko tradizionalen bilakaera historikoari buruzko txostena osatzea izan da; genero-ikuspegia txertatu da, emakume pilotarien parte-hartzeari buruzko kapitulua barne hartuta.

<http://fp7-replay.eu/index.php/en/resources/public-deliverables>

Txostena 2014ko maiatzaren 8an onartu zen Luxenburgon, Europako Batzordearen egoitzan.